

PSN-PSOE. Sozialistak hurrengo hauteskundeak prestatzen hasi dira

Aurrekoetan baino hautagai gehiago aurkeztuko dituela iragarri du PSNk ere

«Nafarroa lehentasun politikoa» dela azpimarratu du Blancok



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

PSOEko eta PSNko buruak goiz osoa bilduta eman zuten atzo Iruñeko sozialisten egoitzan.

Irene Arrizurieta | Iruñea

Heldu den urteko udal hauteskundeetarako, aurrekoetan baino hautagai gehiago aurkeztuko dituela iragarri zuen atzo PSNk. Jose Blanco PSOEko Antolakuntza idazkariak, sozialistentzat Nafarroa «lehentasun politikoa» dela azpimarratu zuen.

PSN eta PSOEko exekutibetako ordezkariak zabal batek bilera egin zuen, atzo, Iruñean. Xedea, maiatzaren 25eko hauteskundeak prestatzea. Hitzorduen ondoren Juan Jose Lizarbe PSNko idazkaria, Jose Blanco, eta Alvaro Cuesta udal politikarako idazkaria mintzatu ziren. Hauteskundeetan hautagai gehiago aurkezteak «demokrazia indartzen ari dela» erakusten duela adierazi zuten sozialistek. «PSN, egun, duela bi urte baino indartsuagoa da. Demokrazia indartsuagoa da Kongresuan hartu erabakiengatik eta onartu den Alderdien Legearengatik», esan zuen Blancok.

Iruñeko alkatetza eta Nafarroako Gobernuaren lortzeko «itxaropen bizia» adierazi zuten sozialistek, eta «lehentasun politikoa» direla gaineratu. «Guztia eman behar dugu. Demokrazia-ri eta ideia aurrerakoiei egin

ESANAK

JOSE BLANCO

(PSOEko Antolakuntza idazkaria)

«Inork ezin du baliatu ETaren estrategia bere jarduna eta kudeaketa politikoa gauzatzeko»

«Nafarroan aldaketa politikoa gauzatzeko indarra badago. Gauzak ongi egiten ari dira»

JUAN JOSE LIZARBE

(PSNko Idazkaria Nagusia)

«Lege proiektuei aurretik aldeko 26 boto eskatzea ez da demokrazia murriztea»

diezaiokegun mesederik handiena delako», azaldu zuen Blancok. Antolakuntza idazkariak PSNren lana goraiatu zuen eta UPNren gobernuaren kritikatutako. «Nafarroan aldaketa politikoa gauzatzeko indarra badago. Gauzak ongi egiten ari dira, guztion interesak alderdia-

ren interesen gainetik ezarriz», laudoriatu zuen. UPNren agintzeko era «PPren gisakoa» dela esan zuen, eta «agintekeria» dariola.

Lizarbek Sanz lehendakariari Gobernuak Parlamentura igortzen dituen lege proiektuak aurretik gutxienez 26 aldeko boto izateko egin eskaerari ezetz erantzun izana ere salatu zuen PSOEko. «Ez da demokrazia murriztea, Batasunaren estrategiak lerroburuetan nagusi ez izateko bermea baizik», azaldu zuen Lizarbek. Baldintza hori onartuz gero, Gobernuaren proposamenak harrera hobea izanen luketela esan zuen PSNko idazkariak. «Ez da Gobernuaren arazoa bakarrik, Nafarroa osoarena baizik», gaineratu zuen.

Blancok elkarriketa bilatzeko eskatu zion UPNri, eta gogoratu zion agintean dela PSNk haren hautagaitza sostengatu zuelako. «Inork ezin du baliatu ETaren estrategia bere jarduna eta kudeaketa politikoa gauzatzeko, eta are gutxiago indar demokratiko batek», gaineratu zuen Blancok. Hala, Lizarbek berretsi zuen Gobernuari eginen dion oposizioa «baliogarria» izanen dela, eta hitz eginen dutela «edukien arabera».

LAGURREAN



DAVID AGUILAR / EFE

Ramon Rabanera eta Rosa Marcos atzoko agerraldian.

PPko Arabako hiru alkateri mehatxu gutunak igorri dizkietela salatu du Ramon Rabanerak

Armiñon, Moreda de Alava eta Bastidako PPko alkateek mehatxu gutunak jaso dituztela salatu zuen atzo Ramon Rabanera Arabako PPko presidente eta Arabako ahaladun nagusiak. Rabanerak Rosa Marcos Armiñongo alkatearekin egin zuen agerraldia atzo. Rabanerak esan zuenez, «Euskal Borroka» izeneko talde batek igorri ditu gutunak. «Herriar kolonoei» Euskal Herriko joateko esaten die, eta helburu hori lortzeko «indar guztiekin borroka egingo» dutela erantsi. Ertzain-etxean salaketa jartzeko asmoa dutela adierazi zuten.

Lete Alberdi eta Ilundain Iriarte presoak estraditatzeko eskatu du Parisko fiskalak

Parisko Dei Gorteko fiskala Ramon Lete Alberdi eta Alberto Ilundain Iriarte presoak estradizioen alde agertu zen atzo. Espainiak eginiko eskaerak onartzeko eskatu zion Parisko auzitegiari fiskalak. Defentsak, aldez, estradizioen kontrako argudioak eman zituen, Epaileek, urriaren 23an emango dute erabakia.

IUK talde propioa izan dezan EAJk biltzarkide bat utziko dio Arabako Biltzar Nagusietan

Arabako Biltzar Nagusietako EAJk erabaki du biltzarkide bat, Jose Miguel Ollora, EB-IUri uztea alderdi horrek talde propioa izateko. Oraino talde mistoan egon da, baina Batasuneko biltzarkideak talde mistora pasatzeko aukeragatik hartu dute erabakia. Azken erabakia, Biltzar Nagusietako Mahaiari dagokio.

Giza eskubideen defentsan 30 protesta baino gehiago egin dituzte presoek kartzelatan

Errefuxiatuen egoera salatzeko, Algeciras eta Alcala Mecoko bizi baldintzak salatzeko eta gaixo dauden presoek askatasuna eskatzeko protestak egin dituzte asteotan Puerto Ien, Martutenen, Almerian, El Dueson, Villabonan, Granadan, Briedan, A Laman, Alcala Mecoko Emakumeetan eta Iruñean. Itxialdiak, karteladak eta barauak egin dituzte, besteak beste.

Espainiako Arartekoari «politika egitea» egotzi dio EAJk

Enrique Mujika Herzog Espainiako Arartekoari bere eginkizunak betetzeko eskatu zion atzo EAJko senatari Jokin Bildarratzek. «Politika egiten eta EAJri eraso egiten denbora gehiago pasatzen du», EAJko ordezkariaren ustez. «Propaganda politikoa egitea edo alderdi bateko kide izatea Arartekoarekin bateraezina» direla esan zuen.

Nicolas Redondo PSEko zuzendaritzaren aholkularitza taldean jartzea nahi dute

PSE-EEko Batzorde Nazionalak hilaren 21ean aztertu du alderdiko zuzendaritzaren aholkularitza talde bat osatzea. Kontseilu Politikoa izena izango luke talde horrek, eta besteak beste, Nicolas Redondo Terremos, Ramon Jauregi eta Jose Maria Benegas bertan egotea proposatu du Patxi Lopezek.